

# Kosta ala kosta suntsitzea

Uztaila 2006



**GREENPEACE**



# EUS

Euskadiko biztanleria baino gehiago, 1,1 milioi pertsona inguru, dago bilduta lurraldearen %12n, kostaldeko eremuan; horrek, beraz, agerian uzten du zonalde horretan gertatu den degradazioa industria, arrantza, egoitza eta azpiegituren kontzentrazioa dela eta.

Hala eta guztiz ere, Euskadiko kostaldeak ingurumeneko aberastasun guztia oraindik gordetzen duen azalera handiak ditu eta hazten ari diren presioen aurrean, babestu egin beharko litezke. Horren inguruan, aipatu beharreko Lurzoruaren Legea eta Itsasertzaren Babeseko eta Antolamenduko Sektore mailako Plana bi albiste on dira, Auzitegi Gorenak eman eta aurtan ezagutu ditugun Plentziako eta Urdaibaiko urbanizazio ilegalen gaineko bi epaiak bezalaxe.

# Kadi

1994 eta 2005 artean, Euskadin artifizializatutako guztizko azalera %5,2koa izatetik, %6,5ekoa izatera igaro da. Azken urtean, lurzorua 452 hektareak ezaugarri naturalak galdu dituzte.

Urbanismoak izan duen bilakaerarekin batera, Euskadiko itsasertzak bizi dituen mehatxu nagusiak bi dira: kirol portuak, nabarmen ugartzen ari direnak, eta kutsadura. Izan ere, kutsadura dela eta, zenbait hondartzak eta estuariok oso kalifikazio eskasa lortzen dute uren kalitateari dagokionez.

Aurrez ikusitako portuen obra guztien artean, Mutrikuko kirol portuaren proiektuak eta Pasaiaiko kanpoko portua dira, zalantzarik gabe, okerrenak. Hondartzetan eta itsaslabaurretan (ez da ahaztu behar ingurumeneko babes maila altuenak dituztela) eragin ditzaketen kalte larriak direla eta, Eusko Jaurlaritzak, kostaldea berreskuratzeko ahalegin guztiak egiten ari dela dioenak, proiektu horiek albo batera utzi beharko lituzke.



© Greenpeace/Bartolomé

Urbanizazioa eraikitzen, Plentziako itsasadarraren alboan.

## Urbanizazioa eta turismoa

Euskadiko itsasertzeko udalerrietan bizi da Euskadiko biztanleriaren zatirik handiena. Etxebizitzen eta bigarren egoitzen ugaritzea Kantauriko beste eskualde batzuetan baino askoz ere arinagoa den arren, eraikuntzaren igoera kontzentratu egin dela antzeman da, batez ere bigarren egoitzen kasuan, itsasertzeko zenbait gunetan: Zarautzen edo Hondarribian, esate baterako.

Getxok, lurzoruaren ia %100 beteta duenak, Azkorri eremuan 8.000 etxebizitza eraikitzeke asmoa izan du. Bilbok, bestalde, 9.000 etxebizitza eraikitzea aurrez ikusi du. Barakaldok ia 6.000 etxebizitza eraikiko du hurrengo urteotan. Santurtzik 1.800 egoitza berri eraikitzeke lanak aurreratu ditu. Bestalde, Donostiako Plan Orokorrak historiako egoitza arloko garapenik handiena aurrez ikusi du; izan ere, paraje bereziak arriskuan jarriko dituen 21.000 egoitza berri eraikitzeke asmoa du hamarkada bateko epean.

Aurten zenbait kasu eta epai ezagutu dugu Euskadiko kostaldean egin dituzten legez kanpoko eraikuntzen gainean. Muskizko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak La Arena hondartzarekin mugakidea den eremuan urbanizazioa

zaezinak diren lurzoruen birsailkapena onartu dute familia bakarreko etxeak eta etxebizitzen lau eraikin eraikitzea ahalbidetzeko. Ondarra SA eta Excavaciones Iru-Ba SA enpresa etxegileek joan den urtean egin zituzten Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Sailburuordetzak baimendu ez zituen betetze lanak, enpresek bete ez zituzten horiek geratzeko hiru agindu zituzten arren.

Auzitegi Gorenak, aurten, legez kanpokotzat jo du GSI izeneko higiezin taldeak Plentziako itsasadarrean sustatu duen oinezkoentzako pasealekua eraikitzeke lana. Pasealekuaren helburua itsasadarra enpresa hori bera eraikitzen ari den familia bakarreko 61 etxebizitzetara gerturatzea zen; horretarako, harri lubeta eraiki zuen ibilguaren alboan, txaleten zimenduak bermatze aldera. 2004. urtearen hasieran, Barrika, Gorliz eta Plentziako Padura, Itsasadarra eta Hondartzen defentsarako Elkarte Naturalistak, Txipio Baik, aurkeztu zuen kereilaren ondoren, Justizia Auzitegi Nagusiak kaleratutako epaiak obra hori ilegaltzat hartu zuen udalerritarako arau subsidiarioetan eta zonaldeko hirigintzako plan partzalean aurrez ikusita ez zegoelako. Ingurumen Sailak bost metroko eta hogeit metroko zabalera zuen harri lubetaren lanak gerarazi egin zituen. Baina enpresa etxegileak bere lanekin jarraitu zuen eta, azkenean, Ingurumenak joan den urtean baimendu zuen harri lubeta.

Lemoizko Udala duela gutxi zigortu dute ingurumenaren gaineko informazioa emateari uko egiteagatik; izan ere, urbanizaezinak diren lurzoruetan eraikuntzako lizentziak ematearen gaineko datuen gaineko eskaerari uko egin zion. Txipio Bai elkarteak jarri zuen salaketa. Elkarte horrek, bestalde, beste demanda bat ezarri zuen delitu beragatik, azken bost urteotan esleitutako eraikuntza lizentzien gainean.

### Ardanzak Urdaibain duen txaleta

2002ko maiatzean, Gautegiz-Arteagako arkitektoak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako patronatuko arkitektoak lehendakari ohiaren eta Euskalteko presidentearen, Jose Antonio Ardanzen, txaletean egindako legezko-tasunik ezak salatu zituzten.

Ingurumen Saitetik eta Eusko Jaurlaritzaren Batzordeak egindako errekerimendu formalei ez die kasurik egin udalerrri hartako udalak. Hori dela eta, Ekologistak Martxanek obra ilegal horren aurkako hiru errekerimendu aurkeztu zituen, baina arau haustea lau urteren buruan preskribatu egiten dira; hau da, joan den maiatzean.

Urdaibaiko Biosfera Erreserban gertatu den ilegaltasun kasu bakarra ez da hori izan, ordea. Ingurumen Sailak erreserbaren erdi-erdian 20 txalet eraikitzeko baimena eman zuen, Kantauriko artadiaren eta paduren artean. Erabaki hori zigortu egin zuen Justizia Auzitegi Nagusiak eta administrazio horri "arbitrariorotasunez" eta "modu inkongruentean eta inkoherentean" lan egitea leporatu zion. Epai horren aurkako helegitea jarri zuen Eusko Jaurlaritzak Auzitegi Gorenean eta hark ez du oraindik erabakirik hartu gaiaren inguruan.

## Itsasertzeko jarduerak

Biztanleriaren zatirik handiena itsasertzean biltuta dagoen arren, gaur egun arte kostaldeko zati handiak mantendu dituzte egoera ezin hobean; hori dela eta, ezinbestekoa da eremu horiek babesteko ahaleginak ugartzea etorkizuneko presioak eragotzi ahal izateko.

Itsasertzaren Babeseko eta Antolamenduko Sektore mailako Plana onarpen fasean dago. Haren helburua Kostaldean Legea osatzea da, Euskadiko itsasertzeko eremuaren babesa eta kontserbazioa handitu ahal izateko.

Plan horrek zehazten duenaren arabera, baliorik handiena duten eremuak Jaizkibealeko itsaslabarrak, marearteko zabalgunea eta Zumaia eta Deba artean dauden itsaslabarrak, Ogoñotik Matxitxakora arte doan kostaldeko arku (Izaro barne) eta Gaztelugatxeko eremua (aurrekoaren albokoa) eta Villano lurmurreko eremua dira.

Baina beste obra batzuek itsasertzaren osotasuna jartzen dute arriskuan. Getxon, Ereaga hondartzatik Portu Zaharrera arte doan pasealekua handitzeko obrak itsasoan barrena lau metroko kai berria eraikitzea ekarriko du, marearteko zona arrokatsua zementu azpian harapatuz. Getxo Bizia plataformak mozioa aurkeztu du osoko bilkuran obra egitea saihesteko.



Mutrikuko portua zabaltzeko lanak.

## Mundakako olatua

Urdaibaiko itsasadarraren bokalean, adi-tuen arabera, Europa osoko ezkerreko olaturik onena sortu ohi zen; surflariak gozarazten zituen hark eta Mundaka izeneko Bizkaiko udalerrirako diru sarreren iturria zen. Baina Muretako ontziolak Biosferako Erreserba horretako paduretan instalatu izanak eta itsasontziek instalazioetan sartu ahal izateko estuarioan bata bestearen atzetik egin zituzten sedimentuen dragatze lanek korronteen oreka aldatu dute, eta horrek olatua desagerraraztea eragin du.

Itxuraz, 2003. urtean egin zuten dragatzea, ibilbidetik 287.000 m<sup>3</sup> hondar kendu eta Laida hondartzen utzi zutena, izan da olatua desagertzearen arduradun zuzena, itsasadarraren bide naturala itxi baitzuen horrek, hondartzari erantsitako bide berria sortzea eraginez.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren aurreikuspenen arabera, olatua aurtentzulari itzuliko da.

## Portuak

Itsasertzaren Babeseko eta Antolamenduko Sektore mailako Planak kirol edo merkataritzako portuekin lotura duten 16 jarduera biltzen ditu; zalantzarik gabe, kopurua handiegia da, itsasertzean eragiten duten ingurumeneko inpaktuak kontuan hartzen baditugu.

1985. urtetik gaur egun arte, Euskadik Espainiako Estatu osoko amarraduren igoerarik handiena izan du; 1.280 izatetik, 4.825 izatera igaro dira.

Hiru udalerrik, Bakiok, Oriok eta Zarautzek, kirol instalazio berriak eraikitzeko planak dituzte. Bilboko eta Lekeitioko portuek portuetako azpiegituretan handiagotzeak egin dituzte; aldiz, Oriok, Armintxak, Debak, Mutrikuk, Ondarroak, Zarautzek, Donostiak eta Pasaia portuak handitzea aurrez ikusi dute.

Mutrikuko portuan 330 kirol amarradura izateko kai mutur handi bat egiteko asmoa dute. Proiektuaren neurri erraldoiek nabarmen murriztuko lukete udalerriko hondartzaren neurria. Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailburutzaren babesa du, ingurumenean kalte handiak eragingo dituen arren.

Mutriku Natur Taldea izeneko Ingurumena Babesteko Plataformak salaketa jarri du obra

horien aurka Gipuzkoako Ingurumen Fiskaltzaren aurrean, Mutrikuko hondartzak egun duen Babes Zorrotzeko Zonalde Berezi izendapenari kalte egingo diolako. Baina hori ez da kirol portu horrek jaso duen lehen salaketa, obrak Ingurumen Ministerioako Kostaldean Zuzendaritza Nagusiak emandako baimena iraungi ostean jarri baitzituzten abian eta, gainera, itsasoko-lurreko jabetza publikoko 247.000 m<sup>2</sup>ko esleipen irregularra gertatu zen. Gertaera horiek Audientzia Nazionalaren aurrean salatu zituzten.

Donostian, aldiz, kirol portua jartzeko bideragarritasun ikerketa berriak ari dira egiten. Portua egiteko bi aukera aztertu dituzte: Paseo Berria eta Sagues-Monpaseko badia. Azken kokapen horretarako, Ingurumen Ministerioak 1996an egin zuen txostenaren arabera, kirol portua toki horretan egiteak Zurriola hondartzarako oso ondorio kaltegarriak izango lituzke.

Greenpeacek Pasaiaiko Kanpoko Portuaren proiektuaren aurka dagoela behin eta berriro aipatu du ezaugarri horietako obrak orain arte oso egoera onean zainduta egon den babestutako itsasertzean eragingo lukeen ingurumen inpaktu izugarria dela eta.

Kanpoko kirol portu berria egin nahi duten zonaldeak duen garrantzi ekologikoa begibistakoa da. Jaizkibel mendia Komunitateko Interesgune gisa izendatu zuten; hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak hori mantentzea zuzendutako neurriak soilik har ditzake han, Europako Habitaten Arteztarauak agintzen duen moduan. Gainera, itsasoko eta lurreko jabetza publikoa eta Jaizkibel inguruko itsasertzeko babeseko zorgunea "Ingurumenari dagokionez Eremu Sentibera " gisa izendatu dira, Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorren arabera. Gainera, kostaldeko tarte hori Euskadiko Itsasertzaren Babeseko eta Antolamenduko Sektore mailako Planeko "lehentasuneko ingurumen defentsako" zonalde bihurtzeko hautagai sendoa izango dela dirudi eta horrek hori mantentzea eta babestea bermatu beharko luke

Proiektua gauzatzeko justifikazio ekonomikorik ere ez dagoela dirudi portuen ikuspuntutik,

Bilboko portua handitzeko lanak amaitu berri dituztela kontuan hartzen badugu; izan ere, lan horiek Euskadi osoarentzat diseinatu eta dimentsionatu zituzten.

Jaizkibeleko itsaslabarrei itsatsi beharrean, "portua-uhartea" eraikitzeke proposamen berriak, gainera, ez ditu inola ere konponduko kanpoko portuak biltzen dituen ingurumen arazoak, obrak betetze lan handiak egitea eta kutsadura nabarmen ugartzea ekarriko bailuke eta korronteen erregimenean eragin nabarmena izan eta inguruko kostaldeetara sedimentuak iristea eragingo luke.

Proiektu horren arduradunek, Portuen Agintaritzak eta Gipuzkoako Aldundiak ez dute horren bideragarritasun ekonomikoa agertu.

Ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspuntutik, proposamenik zentzuzkoena egungo Pasaiaiko portua modu egokian kudeatzea litzateke; horretarako, beharrezkoa litzateke instalazioak modernizatzea eta ingurumeneko aurrerapen eta berme guztiak biltzea, oraingo ingurumeneko eraginak desagerraraziko lituzkeen eta besterik gehituko ez lukeen badiaren birsorkuntzarekin bateragarri eginez.

## Kutsadura

Euskadiko urek, estuarioek eta hondartzek dituzten kutsadura arazoak ez dituzte oraindik konpondu. Aurreko urteetan, uren kalitatea hobetzea lortu zuten saneamendu planak abian jarritan eta Nerbioren kasuan, horiek begibistakoa izan ziren. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak eskuragarri dituen azken datuen arabera, 2004. urtean uren kalitatea okertu egin zen kostaldeko zein estuario barneko uretan.

Itsasertzean, kutsatu gabe gisa kalifikatutako laginketa estazioen kopurua %62tik %46ra gutxitu da; horrenbestez, egoera nabarmen okertu dela uste dugu. Estuarioen kasuan, arazoa espezifiko eta zorrotzagoa da, batez ere barneko tokietan eta ibaien eragin handiagoa dutenetan. Eusko Jaurlaritzaren arabera,



Hondakin uren portzentaia handi bat itsasora isurtzen da.

laginketarik okerrenak Urumeako eta Oiartzungo estuarioenak izan dira eta onenak, aldiz, Bidasoakoak, Leakoak, Barbadunekoak eta Butroekoak.

Urdaibaiko erreserbaren saneamendu planak azkenean abian jarriko dute, baina, horretarako, 2009. urtera arte itxaron beharko dugu. Izan ere, kostaldeko eremu horrek ez du hondakin urak jasotzeko sistemarik, Biosferako erreserba den arren; hori dela eta, ur beltz gehienak toki hura zeharkatzen duen itsasadarrean amaitzen dute.

Hondartzei dagokienez, kutsaduraren arazoa zabaldua dagoen hondartza zehatz batzuetarako kalifikazio txar bera errepikatu ohi da urtero: Getxo, Sukarrieta, Ondarroa-Saturran, Deba, Zumaiko Santiago eta Orioko Oribarzar hondartzak; beste hondartza batzuek ere zenbait gunetan arazoak izan ohi dituzte eta aldian-aldian jendeak bainua hartzeko ezgaitu egiten dituzte. Hori da, esate baterako, Zarauzko hondartzaren eta Zurriolaren kasua.

### Esteka aipagarriak

Txipio Bai elkartea:

[www.geocities.com/rainforest/jungle/3575/index.htm](http://www.geocities.com/rainforest/jungle/3575/index.htm)

Ekologistak Martxan:

[www.ecologistasenaccion.org](http://www.ecologistasenaccion.org)

Jaizkibel Bizirik:


[www.nodo50.org/jaizkibel/](http://www.nodo50.org/jaizkibel/)

Getxo Bizia herri plataforma:

[www.getxobizia.org](http://www.getxobizia.org)



## Euskadiko itsasertzeko gune beltzak



### Gipuzkoa

1. Pasaia. Kanpoko portuaren proiektua.
2. Donostia. 21.000 etxebizitza. Kirol portua egiteko proiektua.
3. Orio. Kirol portua handitzeko proiektua. Hondartzen kutsadura.
4. Zarautz. Kirol portua handitzeko proiektua. Hondartzen kutsadura.
5. Zumaia. Hondartzen kutsadura.
6. Deba. Kirol portua handitzeko proiektua.
7. Mutriku. Kirol portua handitzeko proiektua.

### Bizkaia

8. Ondarroa. Kirol portua handitzeko proiektua. Hondartzen kutsadura.
9. Toñako hondartza. Sukarrieta. Bainua hartzeko uren kalitate txarra.
10. Bakio. Kirol portua egiteko proiektua.
11. Lemoiz. Udalaren aurkako zigorra urbanizaezinak diren lurzoruetan eraikitzeari buruzko informazioa ez emateagatik.
12. Armintxa. Kirol portua handitzeko proiektua.

13. Plentzia. Legez kontra eraikitako itsas pasealekua eta harri lubeta.
14. Getxo. 8.000 etxebizitza. Itsas pasealekua. Hondartzen kutsadura.
15. Bilbo. 9.000 etxebizitza.
16. Santurtzi. 1.800 etxebizitza.